



LAB eta ELAko EAEko udal eta foru administrazioiko ordezkariak otsailaren 28rako iragarritako lanuzteak erregistratu dituzte gaur, Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzan. Sindikatuotako kideek adierazpenak egin dituzte Jaurlaritzaren atarian, eta 30.000 langileei egin diete dei lanuzte eta mobilizazioetan parte hartzeko, [joan den urtarrila bukaeran egindako agerraldian](#) egin bezala. Ondoren, Arriagara abiatu dira, eta elkarretaratze bat egin dute bertan.



Lanuzteen erregistroa egin eta gero, Arriagan elkarretaratze bat egin dugu, EAEko udal eta foru administrazioiko langileen aldarrikapenak jakinarazteko.

